

## Clàudia Cedó. Antzertoki berezietan sortzaile



PROSCENIUM

**Psikologoa da Clàudia Cedó, baita antzerki-zuzendaria eta antzerkigilea ere. Banyoles (Girona) du bizitoki eta han sortu du, artea eta psikologia uztartuz, gaixotasun mentala duten 120 lagunek osatutako Escenaris Especials egitasmoa.**

# “Antzerkia askatasun espazioa da, eta gaixotasun mentala dutenak ohituta daude halakorik ez izatera”



Saioa Baleztena  
@SaioB

## Duintasuna

“Psikologia ikasketak amaitu nitue-  
nean espetxeetan eta desintoxikazio  
zentroetan lan egiten nuen. Erraie-  
tan izan dut beti psikologia eta an-  
tzerkiarekiko interesa. Beraz, 2006an,  
Banyolaseko Udalari proposatu nion  
Escenaris Especials proiektua. Ideia  
zen espetxeetan zeudenei, autismoa  
zutenei eta alkoholismoaren kontra  
borrokatzen ari zirenei ikastaroak es-  
kaintzea. Hamar urte hauetan lortu  
ditugun emaitzak sekulakoak izan dira.  
Erakunde publikoak ohartu egin behar  
dira gure lanak zenbateraino lagun-  
tzen dien bazterkerian dauden perso-  
na horiei duintasuna lortzen”.

**2006an otu zitzaizun psikologia eta artea fusionatzea. Nola sortu zen ideia?**

Psikologia eta antzerkia uztartuta lor-  
zitezkeen helburuak ezagutzeko jakin-  
-mina nuen aspalditik. Psikologia ikas-  
ketak amaitu berri nituen, eta antzerkia  
ikasten ari nintzela jabetu nintzen an-  
tzerkigintzan egiten nituen jarduerak  
barruko emozioetan eragiten zidatela.  
Konturatu gabe, psikologiaren bitartez  
ere landu zitezkeen gauzak lantzen hasi  
nintzen antzeppenaren bitartez. Beraz,  
erabaki nuen erabilgarria litzatekeela  
esperientzia horri forma eman eta Esce-  
naris Especials proiektua abiatzea.

**Erreferentziazko proiekturen batean oi-  
narritu zinen bide horri ekiteko?**

Artea askok landu dute terapiaren alde.  
Adibidez, erreferenteetako bat dut Ja-  
cob Levy Morenoren psikodrama. Hark  
ere psikologia eta antzerkia uztartzen  
zituen, baina, arazo psikologikoak lan-  
tzeko interesa zituzten kideak aukera-  
tzen zituen antzerkiaren bitartez, haien  
arazoak antzeztu eta lantzeko.

**Zertan da desberdina Escenaris Espe-  
cials?**

Gurea ez da terapia. Guri interesatzen  
zaigu, adibidez, drogadikzioaren kon-  
trako borrokan dauden ikasleek antzez-  
lan bat egitea gai horretaz; agian eu-  
rek heriotzaz hitz egin nahi dute, edo  
sexuaz, edo beste gairen batez. Beraz,  
zentzu horretan gaiak irekiagoak dira;  
izan ere, estigmak eragiten duena da  
autismoa edo gaixotasun mentala duten  
lagunek horretaz baizik ez hitz egitea,  
eta hori bazterketa da.

**Antzerkigintza, bere horretan, terapeu-  
tikoa da?**

Zalantzarik gabe, eta horretan oinarri-  
tzen gara. Alegia, antzerkia egitea guz-  
tiantzat da positiboa. Antzerkigintza  
askatasun espazioa da, nahi duguna fil-  
trorik gabe esan eta egiteko. Baliabide  
bat da, gertatzen dena da kolektibo hau  
bereziki ohituta dagoela askatasun es-  
paziorik ez izatera. Tira, guk ez dugu  
terapiarik egiten, baina terapeutikoa  
bada, izan.



*"Gurea ez da terapia. Interesatzen zaigu, adibidez, drogadikzioaren kontrako borrokan dauden ikasleek antzezlan bat egitea gai horretaz; agian eurek heritzaz hitz egin nahi dute, edo sexuaz, edo beste gairen batez. Estigmak eragiten du autismoa edo gaixotasun mentala duten lagunek horretaz baizik ez hitz egitea".*

ESCENARIS ESPECIALS

### **Hamargarren urteurrena ospatzen ari zarete. Emaitzekin pozik?**

Azken hilabeteetan hainbat ekitaldi antolatu ditugu, baina bereziena azkena izan da: urteurren gala. Oso pozik gaude emaitzarekin. Sari banaketa izan zen, oso hunkigarria. Hamar urte hauetan egin ditugun 54 antzezlanak ekitaldian aipatu genituen eta, hein batean, aitzakia izan zen ibilbide guztia-  
ren errepasoa egiteko.

### **Nola eragiten die sari banaketa baten birtartezko aitortzak zuen ikasleei?**

Kontuan hartuta Hollywooden mailako gala bat antolatu genuela, ikasleek ilusio handiz bizi izan zuten. Aktore ezagunak etorri ziren eta aukera izan genuen aldarrikapena egiteko. Izan ere, gisa honetako galletan normalean gaixotasun mentala duten pertsonak ikusezinak izaten dira, erabat.

### **Bakarrik hasi zinen. Zeintzuk osatzen duzue gaur egun lantaldea?**

Oraintxe 120 ikasle ditugu eta lantaldea handitu da. Marta Iglesias psikologoa

eta antzerki zuzendaria da, ni bezala. Ana del Barrio arduratzen da ekoizpen arloaz, eta behin espektakulua sortzen dugunean, jende gehiagok parte hartzen du, kontu teknikoak, eszenografikoak eta diseinu lanak egiteko.

### **Nola lortzen duzue finantzazioa?**

Hasteko, antzerki saioak eskaintzen dizkiegun hamar fundazioek urteko kuota bat ordaintzen dute. Horretaz aparte, Banyoleseko Udalaren, La Caixaren, Psikologoaren Eskolaren eta beste hainbat elkar-terren diru-laguntzak jasotzen ditugu. Gure erronka da finantzazioa bilatzen jarraitzea ekonomia ez dadin izan edonor proiektuan murgiltzeko arazo bat.

### **Zein da zuenean parte hartzen duten ikasleen profila?**

Profilak askotarikoak dira: ahalmen urritasuna duten helduak, gaixotasun mentala dutenak, autismoa dutenak, urritasun neuromotoreak dituzten haurrak eta adikzioen kontrako borrokan daudenak, besteak beste.

### **Eta zein da haien beharrik garrantzitsuena?**

Euren askatasuna sustatzen duten ekimenen beharra dute. Baina behar hori orokorra da, ez bakarrik bazterketa jasaten dutenentzat, baizik eta gizartearentzat, oro har. Haur garenean, askatasunez jolasteko espazioekin arazorik ez dago, baina koskortzen garenean, espazio horiek desagertzen dira erabat. Eta osasun mentalerako funtsezkoak dira. Desberdintasunari balioa emango bagenio, kultura izugarri aberastuko litzateke, eta, artea baliabide bikaina da horretarako.

### **Zaila da artea eta terapia uztartzen dituen proiektu bat altxatzea?**

Egoera asko hobetu da hamar urte hauetan, baina lan handia dugu aurretik. Zaila da gizarteari eta erakundeei ulertaraztea psikologia eta artea uztartzen dituzten proiektuak ezinbestekoak direla. Sekulako lana egiten ari gara, eta jendea ez da konturatzen. Ez dago erantzukizunik, eta borroka etengabea da. ■